"UDALEKUAK 2021" UDAKO KANPAINAREN BARRUAN HAUR UDALEKUAK ANTOLATU ETA GARATZEKO ZERBITZU KONTRATUA ARAUTZEN DUTEN PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA

AURREKARIAK

"Udalekuak 2021" udako kanpainaren barruan, Gazteria Zuzendaritza Nagusiak haurrentzako hainbat udaleku antolatuko ditu, bai Gipuzkoako Foru Aldundiaren sareko aterpetxeetan, bai sare horretatik kanpoko aterpetxe edo gazte instalazioetan.

Tradizioz, 7 eta 13 urte bitarteko haurrentzako udalekuak Gipuzkoako Foru Aldundiaren sareko aterpetxeetan garatu izan dira, baina aurten, SARS COV 2ak sortutako beharrak ikusita, eta instalazioen gaitasun osoa erabiltzea ezinezkoa denez, edukiera murriztu egin da, eta berezko plazak galdu dira "Udalekuak 2021" udako kanpainaren planteamenduari begira.

Horrela, aurreko urteetako maila berberetan udako kanpaina gozatzen duten haurren kopurua mantendu ahal izateko, plaza propioen galera hori konpentsatu egin behar da zerbitzu integralak kontratatuz. Zerbitzu horiek udalekuen antolaketa eta garapena barne hartu behar dituzte, eta ekarri behar dituzte bai haur eta gazte taldeen ostatu, mantenu eta aisiarako instalazioa, bai zaintzaileak.

Horregatik guztiagatik, eta "Udalekuak 2021" udako kanpaina honetako behar diren plazak betetzeko, haurrentzako hiru kolonia antolatu eta garatzeko zerbitzu integrala kontratatu behar da. Hori da kontratu honen xedea, eta hiru lotetan banatzen da, kolonia bakoitzeko bat.

1.- KONTRATUAREN XEDEA

"Udalekuak 2021" udako kanpainaren barruan, hiru haur udaleku antolatu eta garatzea Gipuzkoako Lurralde Historikoko edo Gipuzkoako Lurralde Historikoaren mugakide diren eremu euskaldunetako gazte aterpetxe edo instalazioetan, 2008tik 2012ra bitartean jaiotako eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko edozein udalerritan erroldatutako haurrentzat.

Kontratuaren ezaugarriak direla-eta, hiru lote ezarri dira:

- 1. lotea.- Gipuzkoako Lurralde Historikoan edo Gipuzkoako Lurralde Historikoaren mugakide diren eremu euskaldunetan udaleku bat antolatu eta garatzea, aisialdiko eta naturarekin lotzeko jarduerekin, uztailaren 1etik 14ra.
- 2. lotea.- Gipuzkoako Lurralde Historikoan edo Gipuzkoako Lurralde Historikoaren mugakide diren eremu euskaldunetan haur udaleku bat antolatu eta garatzea, aisialdiko eta naturarekin lotzeko jarduerekin, uztailaren 1etik 14ra.
- 3. lotea.- Gipuzkoako Lurralde Historikoan edo Gipuzkoako Lurralde Historikoaren mugakide diren eremu euskaldunetan haur udaleku bat antolatu eta garatzea, aisialdiko eta naturarekin lotzeko jarduerekin, uztailaren 16etik 29ra.

Hiru haur-kolonia horiek garatzen dituzten proiektuak esleitzeko beharrezkoak diren baldintzak eta betekizunak ezartzeko egiten da Preskripzio Teknikoen Agiri hau.

2.- KONTRATUAREN EZAUGARRI TEKNIKOAK

Lote bakoitzean aurkeztutako eskaintza bakoitzak modu integralean jaso behar ditu parte-hartzaileen arretarako premia guztiak, adinaren arabera.

2.1. Instalazioen ezaugarriak

Gipuzkoako Foru Aldundiaren udalekuak garatuko diren instalazioek agintari eta/edo erakunde eskudunek eskatutako neurri guztiak bete beharko dituzte.

Lizitatzaileek eskaintzen dituzten instalazioak honako modalitate hauetakoren batean sailkatuta egon beharko dira:

1. Haur eta gazte taldeei ostatu emateko aterpea edo instalazioa, Eusko Jaurlaritzako Gazteria Zuzendaritza Nagusiak aitortua, –haur eta gazte taldeei ostatu emateko aterpetxeak eta instalazioak antolatzeari buruzko urriaren 18ko 406/1994 Dekretuan eta hori garatzen duen 1997ko azaroaren 12ko Aginduan ezarritakoaren arabera–.

2. Euskal Autonomia Erkidegoko turismo aterpetxeak antolatzeko uztailaren 9ko 200/2013 Dekretuak ofizialki aitortutako turismo aterpetxeak edo instalazioak.

3. Abenduaren 5eko 140/2005 Foru Dekretuak, Turismo aterpetxeak Antolatzeko Erregelamendua onartzen duenak, eta ekainaren 18ko 190/2004 Foru Aginduak, Kultura eta Turismoko kontseilariak –Vianako Principe Erakundea– Nafarroako Turismo Erregistroan inskribatzeko prozedura ezartzen duenak ofizialki aitortutako aterpetxeak edo turismo instalazioak.

4. Udal titulartasuneko aterpetxeak edo instalazioak, haur eta gazte taldeei ostatu emateko. Instalazioaren titularra den udalaren idazki edo komunikazio bidez egiaztatu beharko da haur eta gazte taldeei ostatu emateko nahitaezko eta beharrezko bizigarritasun baldintza guztiak betetzen direla.

5. Haur eta gazte taldeen egonaldirako eta bizitokirako jarduerarako udal lizentzia duten instalazio pribatuak.

Lizitatzaileek "udalekuak 2021" udako kanpainako lote bakoitzerako proposatutako instalazioek COVID 19 edukiera nahikoa izan beharko dute, gutxienez, lote bakoitzerako ezartzen den plaza kopurua gehi kontratua egikaritzeari lotutako langileak hartzeko plazak kokatzeko.

Gainera, instalazioak zerbitzu hauek izango ditu:

- Sukaldea eta jantokia, gutxienez lote bakoitzari esleitutako plazak gehi dagozkien monitoreak mantentzeko egokituak.
- Loteari esleitutako parte-hartzaile kopurua eta gizarte eta hezkuntza programan jasotako jarduerak egiteko beharrezkoak diren pertsonak ostatatzeko erabat hornitutako gelak.
- Bainuak, dutxak eta konketak, instalazioan dauden parte hartzaileei gutxienez arreta emateko beharrezkoak direnak.
- Kanpoko aisialdi eremua.

2.2. Koloniaren antolaketaren ezaugarri orokorrak

Erakunde esleipendunek gastu hauek ordaindu beharko dituzte:

- Mantenu osoko egonaldia (gosaria, bazkaria, askaria eta afaria) lote bakoitzari esleitutako pertsonentzat, bai eta dinamizazio-taldeko pertsonentzat eta une jakin batean jarduerak egiten ari diren espezialistentzat ere.
- Instalazioen mantentze-lanak, ura, argia eta garbiketa.
- Txanda bakoitzean antolatutako txangoetan parte hartzen duten pertsonak garraiatzeko garraioa. Garraio hori desgaitasuna duten pertsonentzat egokitu beharko da, beharrezkoa izanez gero.

2.3. Giza baliabideak eta bitarteko materialak

Lote bakoitza banatzen den txanda bakoitzean parte hartzen duten pertsonei arreta emateko behar den gutxieneko pertsonala agiri honen 3. apartatuan adierazten da, eta eskatzen diren titulazioak honako hauek dira:

➢ Haurrentzako eta gazteentzako aisialdiko hezkuntza jardueren zuzendaria:

- Haur eta gazteen aisialdiko hezkuntza jardueren zuzendari titulua edo Eusko Jaurlaritzak homologatutako edo, modu subsidiarioan, gizarte hezkuntzako gradu titulua edo beste edozein titulu baliokide.
- C1 titulua edo horren baliokidea.
- B1 gidatzeko baimena edukitzea.

➢ Haurrentzako eta gazteentzako aisialdiko hezkuntza jardueretako begiraleak:

- Haur eta gazteen aisialdiko hezkuntza jardueretako begirale titulua edo Eusko Jaurlaritzak homologatutako edo haren baliokidea den beste edozein titulu edo, modu subsidiarioan, gizarte eta hezkuntza arloko gradu titulua edo baliokidea.
- B2 titulua edo euskara ezagutzaren baliokidea.

Lizitatzaileek lote bakoitzari lotutako zerbitzua emateko instalazio egokiak izan beharko dituzte, honako hautan instalazio bakoitzerako definitzen diren ezaugarriei jarraikiz: "2.1. Eskaini beharreko instalazioen ezaugarriak"," 3. "Lote bakoitzerako zehaztasunak" eta Preskripzio Teknikoen Agiri honetako "5. KORONABIRUS SARS COV 2 (COVID 19)".

Gainera, kontratuaren eskura jarri beharko da urgentzia edo beharrezko lekualdaketak egiteko ibilgailua.

2.4. Animazio jardueren gizarte eta hezkuntza programa:

Enpresa lizitatzaileek animazio jardueren gizarte eta hezkuntza programa bat aurkeztu beharko dute, lote bakoitzean parte hartzen duten pertsonen txandetara, adinetara eta hizkuntza ereduetara egokituko dena.

Ezartzen den txanda bakoitza lehen eguneko bazkariarekin hasiko da eta azken eguneko bazkariarekin amaituko da.

2.4.1 - Animazio jardueren gizarte eta hezkuntza programek honako alderdi hauek jaso eta garatu beharko dituzte, gutxienez:

a) Proiektuaren ingurune fisikoaren deskribapena:
   - Kokagunea.
   - Instalazioaren espazio fisiko eta egitura.
   - Inguruan erabil daitezkeen baliabideak

b) Animazio jardueren gizarte eta hezkuntza programaren deskribapena, jarduera horiek tenporizazioa dutela, baldin eta esku-hartzeak badakartzate naturaren, ingurumen hezkuntzaren, gorputz eta kirol garapenaren, gizarte eta afektibitate eremuaren eta herrialde-eremuaren (kultura, euskara, geografia eta historia) arloetan, horiek guztiak aisialdiaren eta denbora librearen esparruan ulertuta.

c) Metodologia eta baliabideak
   - Planteatutako programari dagokion lan metodologiaren deskribapena.
   - Planteatutako jarduera bakoitzean erabiliko diren giza baliabideen eta baliabide materialen eta ez-materialen zerrenda.

2.4.2.- Txanda bakoitzean udalekuko jarduerak egiteko egiten diren joan-etorri kolektivo guztiak erakunde esleipendunak ordainduko ditu, eta ez dira adingabeen joateko bidaia eta itzultzekoa, horiek Gipuzkoako Foru Aldundiak ordainduko baititu. Garraio horren barruan sartzen da pertsona ezinduentzako garraio egokitua erabiltzea, beharrezkoa izanez gero.

Garraio publikokoa ez den norberaren edo besteren ibilgailuren bat erabiltzen bada proposatutako jarduerak egiteko, nahitaezkoa izango da:

- Bidaiarientzako nahitaezko asegurua edo horren proposamena, matrikula, markak, plaza kopurua eta erabiliko den ibilgailu mota zehaztuta. Proposamen bat aurkeztuz gero, aseguruari esleipena egin aurretik eskatuko zaio.
- Ibilgailuen Azterketa Teknikoaren (IAT) azterketak egunean izatearen azterketa teknikoko fitxak.

2.4.3.- Nolabaiteko arriskua dakarten jarduera guztietan, erakunde lizitatzaileek jarduera horiek egiteko material eta langile kualifikatuak izan beharko dituzte, baita egin beharreko jarduerei dagozkien administrazio baimenak ere.

3.- LOTE BAKOITZAREN ZEHAZTAPENAK

3.1. 1. lotea.- Gipuzkoako Lurralde Historikoan edo Gipuzkoako Lurralde Historikoaren aldameneko eremuan udaleku bat antolatu eta garatzea, uztailaren 1etik 14ra bitartean aisialdiko, naturarekiko loturako eta/edo multiabenturako jarduerekin.

Jarduera egiteko lekua	Gipuzkoako Lurralde Historikoko edozein udalerritan edo Gipuzkoako Lurralde Historikoaren aldameneko eremu euskaldunean.		
Txandak	Bi (2) 7 egunekoak		
Datak/Plazak eta Hizkuntza eredua	uztailaren 1tik 7era	Gutxienez 30 - gehienez 35 parte hartzaile	Euskara
	Uztailaren 8tik 14era	Gutxienez 30 - gehienez 35 parte hartzaile	Euskara
Parte hartzaileen adinak	9 – 11 / 12 - 13 urte (2008 – 2012 urtetan jaioak)		
Heziketa programa	Astialdiko eta naturarekin eta/edo abentura aniztasunarekin lotzeko jardueren hezkuntza programa.		
Gutxieneko langileak	Gutxienez zuzendari bat, eta gutxienez begirale bat 10 parte-hartzaileko.		
Ezaugarriak	Gutxienez 30-50 plazako instalazioaren edukiera COVID 19. Aterpetxe gisa aitortua (ikus 2.1 instalazioaren ezaugarriak). Sukaldea. - instalazioan bertan janaria prestatzea Gela anizkoitzak.		
OINARRIZKO AURREKONTUA (30 plaza)	28.800,00 € + IVA		

3.2. 2. lotea.- Gipuzkoako Lurralde Historikoan edo Gipuzkoako Lurralde Historikoaren aldameneko eremu euskaldunean haur-udaleku bat antolatzea eta garatzea, uztailaren 1etik 14ra bitartean aisialdiko, naturarekiko loturako eta/edo multiabenturako jarduerekin.

Jarduera egiteko lekua	Gipuzkoako Lurralde Historikoko edozein udalerritan edo Gipuzkoako Lurralde Historikoaren aldameneko eremu euskaldunean.		
Txandak	Bi (2) 7 egunekoak		
Datak / Plazak eta Hizkuntza eredua	uztailaren 1tik 7era	Gutxienez 40 - gehienez 45 parte hartzaile	Euskara
	Uztailaren 8tik 14era	Gutxienez 40 - gehienez 45 parte hartzaile	Euskara
Parte hartzaileen adinak	9 – 11 / 12 - 13 urte (2008 – 2012 urtetan jaioak)		
Heziketa programa	Astialdiko eta naturarekin eta/edo abentura aniztasunarekin lotzeko jardueren hezkuntza programa.		
Gutxieneko langileak	Gutxienez zuzendari bat, eta gutxienez begirale bat 10 parte-hartzaileko.		

Ezaugarriak	Gutxienez 40-60 plazako instalazioaren edukiera COVID 19. Aterpetxe gisa aitortua (ikus 2.1 instalazioaren ezaugarriak). Sukaldea. - instalazioan bertan janaria prestatzea Gela anizkoitzak.
OINARRIZKO AURREKONTUA (40 plaza)	38.400,00 € + BEZ

3.3.- 3. lotea.- Gipuzkoako Lurralde Historikoan edo Gipuzkoako Lurralde Historikoaren mugakidea den inguru euskaldunean haur udaleku bat antolatu eta garatzea, uztailaren 16tik 29ra bitartean, aisialdiko, naturarekiko loturako eta/edo multiabenturako jarduerekin.

Jarduera egiteko lekua	Gipuzkoako Lurralde Historikoko edozein udalerritan edo Gipuzkoako Lurralde Historikoaren aldameneko eremu euskaldunean.		
Txandak	Bi (2) 7 egunekoak		
Datak / Plazak eta Hizkuntza eredua	uztailaren 16tik 22era	Gutxienez 40 - gehienez 45 parte hartzaile	Euskara
	uztailaren 23tik 29era	Gutxienez 40 - gehienez 45 parte hartzaile	Euskara
Parte hartzaileen adinak	9 – 11 / 12 - 13 urte (2008 – 2012 urtetan jaioak)		
Heziketa programa	Astialdiko eta naturarekin eta/edo abentura aniztasunarekin lotzeko jardueren hezkuntza programa.		
Gutxieneko langileak	Gutxienez zuzendari bat, eta gutxienez begirale bat 10 parte-hartzaileko.		
Ezaugarriak	Gutxienez 40-60 plazako instalazioaren edukiera COVID 19. Aterpetxe gisa aitortua (ikus 2.1 instalazioaren ezaugarriak). Sukaldea. - instalazioan bertan janaria prestatzea Gela anizkoitzak.		
OINARRIZKO AURREKONTUA (40 plaza)	38.400,00 € + BEZ		

4. GENERO IKUSPEGIAREN KLAUSULA

Lizitatzaileek, beren proposamenak prestatu eta aurkezterakoan, ez dute hizkera sexistarik erabiliko. Halaber, kontratua indarrean dagoen bitartean, erakunde esleipendunek ez dute hizkera sexistarik erabiliko behin betiko edozein dokumentu idatzi edo digitaletan.

Era berean, datuak sexuaren arabera bereizi beharko dituzte pertsonei buruzko edozein estatistikatan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 3. artikuluaren babesean, non errespetatu beharreko printzipio orokorrak adierazten diren.

Genero berdintasunarekin eta emakumeen aurkako indarkeriarik ezarekin lotutako jarduerak edo ekintzak jaso beharko dira txanda guztietan.

5. KORONABIRUS SARS COV 2 (COVID 19)

Kontuan hartu behar da SARS COV 2 koronabirusak eragindako egoera pandemikoa; beraz, lizitatzen den zerbitzuak une oro bete beharko du Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroako Foru Komunitatean indarrean dagoen araudia osasunaren arloan, hezkuntzako aisialdiari eta haur eta gazteentzako ostatuei dagokienez.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren "udalekuak 2021" udako kanpainako koloniak garatuko diren instalazioek SARS COV2k ekoitzitako pandemiaren aurka borrokatzeko agintari eta/edo erakunde eskudunek eskatutako neurri guztiak bete beharko dituzte hezkuntzako aisialdiari eta haur taldeentzako ostatuari dagokienez, eta bereziki instalazio ahalmenari, espazio komunen edukierari, parte hartzaileen arteko distantziari eta higiene eta osasun neurriei dagokienez.

Jarduerak egiten diren bitartean, osasun agintariek hezkuntza aisialdiko jardueretarako zehazten dituzten betebehar eta gomendio guztiak beteko dira.

Donostia, 2021ko urtarrilaren 25a

Sin.: Teresa Alday Zabalo

GAZTERIKO TEKNIKARIA.

Sin.: Josean Castaño Riezu

ZB, HAUR, NERABE ETA GAZTEEN SUSTAPENA.

Sin.: Xabier Aguirrezabala Martiarena

ZB, HAUR, NERABE ETA GAZTEEN SUSTAPENA.